

**ERRETEKEN TXURROTEGIA IPINTZEKO JABARI PUBLIKOAREN EMAKIDA
ESLEITZEKO ADMINISTRAZIO-KLAUSULA PARTIKULARREN AGIRIA**

1.- Emakidaren xedea

Plegu honen xedea da Erreteren txurrotegia ipintzeko jabari publikoaren administrazio emakidaren baldintzak, prozedura eta esleitzeko modua arautzea.

Esleipendunak ipiniko du postua, erantsitako planoan agertzen den kokagunean, gehienezko neurri hauekin: 23,20 m².

Postua desmuntagarria izango da eta ezingo da obra edo euskarri bidez lurrera josi.

Jarduera nagusia txurroak saltzea izango da. Hala ere, jateko bestelako frijituak eta pizzak ere saldu ahal izango dira, eta baita txurroak edo baimendutako bestelako jatekoak laguntzeko txokolatea edo bestelako alkohol gabeko edariak ere, horretarako beharrezko baldintza guztiak bete ezker.

Erabilera horretatik kanpo ezingo da ezelako ustiapen edo jarduerarik gauzatu eta, baldintza hau beteko ez balitz, emakida bertan behera uzteko zioa izango da.

2.- Emakidaren izaera juridikoa

Esleipenduna eta udala lotuko dituen harreman juridikoaren izaera izango da jabari publikoko administrazio-emakida. Negozio juridiko hori SPKLren aplikazio osotik berariaz baztertua dago, nahiz eta kontratu-araudi publikoaren printzipioak aplikatu behar zaizkion (SPKLren 4. eta 9. artikulua).

Harreman juridiko horren arabera, Bermeoko Udalak emakidadunaren esku jarri besterik ez du egiten plegu honen lehenengo klausulan deskribatutako udal-jabari publikoa. Hala ere, udalak ondasunaren xedea kontrolatu ahal izango du, emakida honek justifikatzen duen helbururako.

Herri Administrazioen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legearen 84. eta 93. artikuluetan eta Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamendua onartzen duen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuaren 78. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusten eta arautzen da herri-jabari administrazio-emakida.

Emakida jabetza-eskubidea izan ezik eta hirugarrenei kalterik egin gabe ematen da. Emakida hori emateak ez dio emakidadunari jabari publikoaren titulartasuna lagatzea ekarriko, ezta udalaren jabari-ahalmenak ere.

3.- Emakidaduna hautatzeko modua

Herri Administrazioen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legeko 93. artikuluan eta Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamendua onartzen duen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuko 78. eta 80. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritik, emakida

hau enkante bidez esleituko da, hau da, prezio altuena eskaintzen duenaren alde egingo da eta berdinketarik egon ezker, zozketa bidez erabakiko da.

4.- Emakidaren epea

Emakidaren epea 15 urtekoa izango da, administrazio agirian emakida idatziz formalizatzen denetik hasita. Epe hori luzaezina izango da eta, beraz, hura betetakoan, jabari publikoaren erabilera pribatiboa utziko da.

Emakidaren amaieran, eraikinak, egindako obra eta instalazio guztiekin, kontserbazio-egoera onean itzuliko dira eta udalari emango zaizkio (salbu eta emakidaren denboran zehar erabilerak eragindako narriadura edo kalte normalak), eta ez du inolako kargarik izango. Emakidadunak ezin izango dio udalari inolako kopururik eskatu bere kontura egindako obra edo instalazioengatik.

Udalak kontzesioa iraungi aurretik berreskuratzeko eskubidea izango du, baldin eta interes publikoko inguruabarrek justifikatzen badute. Udalak erreskatea onartuz gero, emakidadunak konpromisoa hartzen du eraikina eta instalazioak udalaren esku uzteko, hilabeteko epean, udalaren erabakia jakinarazten denetik hasita. Horrela egiten ez badu, agiri hauetan ezarritako kalte-ordaina jasotzeko eskubidea galduko du automatikoki.

5.- Emakidaren kanona

Lizitazioaren oinarri den kanona urtean 2.300,00 eurokoa izango da. Proposamen ekonomikoan prezio hori igo egin daiteke.

6.- Bermea

Esleipenerako proposatutakoak, esleipen prezioaren % 5eko behin betiko bermea jarri behar du, emakidaren betebeharrak beteko dituela eta okupatuko duen ondasuna behar bezala erabiliko dela bermatzeko.

Emakida amaitzen denean, egokiak diren ikuskapenak egin ondoren, bermea itzuliko zaio, ondasunean kalterik sortu ez direla egiaztatzen bada.

Emakidadunari eragotzitako kalterik baleude, kaltearen balioaren zenbatekoan atxikituko zaio ipinitako bermea eta, honekin nahikoa ez balitz, falta diren zatiak premiamenduzko bidea jarraituz kobratuko dira.

7.- Espedientea jendaurrean jartzea

Emakidaren espedientea jendaurrean egongo da hilabetez, Bizkaiko Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean eta Udalaren iragarki oholean iragarkia argitaratuta. Alkatetzak lizitazioa bertan behera utzi ahalko du, alegazioak aurkezten badira eta egoki irizten badu.

Halaber, plegu hauek, espedientea osatzen duten gainerako agiriekin batera, Idazkaritza Sailean egonen dira ikusgai, proposamenak aurkezteko epea bukatu arte. Orobat, Bermeoko Udalaren web orrian ere kontsulta daitezke: www.bermeo.eus.

8.- Lizitazioan parte hartzeko baldintzak

Lizitazioan parte hartu ahalko dute gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoa duten pertsona fisiko zein juridikoen, espainiarrak nahiz atzerritarrak, baldin eta administrazioarekin kontratatzeko debeku edo bateraezintasunik ez badute, Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 71. artikuluekin bat etorritik.

Horretaz gain, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera, ezin dute izan sexu-diskriminazioan erori izanagatiko administrazio-erloto zigorrik. Era berean, Foru Ogasuneko zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak egunean izan beharko dituzte.

9.- Eskariak aurkeztea

Eskariak hilabeteko epean aurkeztu beharko dira, oinarriak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean deialdiaren iragarkia publikatu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, modu hauetako edozeinetan:

- BERHAZ herritarrentzako arreta-bulegoan (Ertzilla kalea, 6-8, 48370, Bermeo).
- Bermeoko kontratugilearen profilean: <https://bermeo.eus/1470.html>
- Legez aurreikusitako gainerako moduetan, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera.

Eskaera aurkezteak deialdiaren oinarriak onartzea ekarriko du. Oro har, ez da eskaerarik onartuko deialdian ezarritako epe ofiziala baino lehen edo ondoren.

10.- Mahaiaren osaketa

Mahaia kide hauekin osatuko da:

Lehendakaria: Idoia Platas Arenaza and., Ekonomiako zinegotzi delegatua (bere ordez, Aritz Abaroa Cantuariense jn.)

Kideak: Jurdana Uriarte Lejarraga and., Udaleko idazkari orokorra (bere ordez, Karmele Muñoa Arrigain and.), Edurne Urrutia Uriarte and., Udal kontu hartzailea (bere ordez, Idurre Basterretxea Altonaga and.), Nerea López Angulo and. Administrazio Orokorreko Teknikaria (bere ordez, Ainara Etxebarria Agorria and.), eta Laura Calleja Madinabeitia and., Errenta teknikaria.

Idazkaria: Olatz Ganboa Elorriaga andrea, Idazkaritzako administrari laguntzailea (bere ordez, Jone Areskurrinaga Jaio and.).

11.- Dokumentazioa eta onarpena

Eskaintzaileek, artxibo elektroniko edo gutun-azal itxi bi aurkeztuko beharko dituzte.

A Gutun-azalean edo artxibo elektronikoan ondorengoa jarriko da: TXURROTEGIA. A GUTUNAZALA/ARTXIBOA. DOKUMENTAZINO OROKORRA. Hona hemen gutun-azal edo artxibo honetan sartu beharrekoa: Emakidaduna izateko baldintzak betetzearen zinpeko aitortpena (I. Eranskina).

B Gutun-azalean edo artxiboan, ondorengoa jarriko da: TXURROTEGIA. B GUTUNAZALA/ARTXIBOA. PROPOSAMEN EKONOMIKOA. Gutun-azal edo artxibo honetan proposamen ekonomikoa sartuko da, II. Eranskineko eredia jarraituta egingo dena.

Mahaiak, proposamenak aurkezteko epea amaituta, A gutun-azalak edo artxiboak zabalduko ditu eta, akatsak egon ezker, zuzentzeko 3 laneguneko epea emango ditu akatsa egin duen parte hartzaileari.

Akatsak zuzentzen ez badira, prozesutik kanpo geratuko da.

Behin A gutun-azala edo artxiboa zabaldua eta egon daitezkeen akatsak zuzenduta edo horretarako epea amaituta, B gutun-azala edo artxiboa zabalduko da horretarako deitutako ekintza publikoan. Eguna eta ordua Bermeoko Udalaren web orrian eta iragarki oholean iragarriko dira, deialdia egin baino egun baliodun bat lehenago gutxienez.

Lizitatuzaileek A gutun-azalean edo artxiboan aurkeztutako dokumentazio orokorraren kalifikazioaren emaitzaren berri emanez ekingo dio Mahaiak bere jardunari, baztertutako lizitatuzaileak eta baztertzeko arrazoiak azalduz, eta bertaratutakoak aktan jasoko diren oharrak egitera gonbidatuko ditu.

Edozein parte-hartzailek, bere ekimenez, aurkeztutako dokumentazioa azter dezake horrela adierazi gero.

Esleitzeko irizpide bakarra prezioa denez, Mahaiak esleipen-proposamena egingo dio proposamen ekonomikorik onuragarrienari.

12.- Prozedura

Proposamenak zabaldu eta, gehienez, hilabeteko epean, dagokion udal organoak, emakiden esleipena egingo du, eskaintza altuena aurkeztu duenaren alde.

Esleipena egin orduko, proposatzen diren parte hartzaileei, errekerimendua bidaliko zaie honako agiri hauek aurkeztu ditzaten 15 laneguneko epean:

- Proposamena sinatzen duenaren NANA.

- Pertsona juridikoa bada, Sozietatearen Konstituzio Eskrituraren kopia baimendua, edo notaritzako testigantza, edo behar den moduan legeztatutako fotokopia, eta proposamena sinatzen duenaren alde emandako ahalmen nahikodun ahalordea edo testigantza notariala, Merkatal Erregistroan inskribaturiko bataren eta bestearen dokumentu bateratu bat.
- Emakida honen xede diren erabilera eta jarduerak garatzeko ahalmena daukala, hau da, lehiatzaileen objektu sozialarekin edo jarduerarekin bat datorrela egiaztatzen duen agiria, aurreko atalean aipatutakoak aurkeztu behar ez baditu.
- Ogasunarekin betebeharrak guztiak ordainduta edukitzearen Lurraldeko ziurtagiria.
- Gizarte Segurantzarekin betebeharrak guztiak ordainduta edukitzearen ziurtagiria.
- Garatuko den jarduerari dagokion Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan altan egotearen agiria.
- Behin betiko bermea.
- Erantzukizun zibileko aseguru poliza.

Parte-hartzaileei egotzi dakizkien kausak direla medio, aurreko klausuletan azaldutako dokumentuetariko edozein falta, edo osotu barik daudelako kontratua formalizatu ezin izango balitz, administrazioak, interesatuari audientzia eman eta gero, hori suntsitzea erabakiko du.

Kontratua suntsiarazten den kasuan, adjudikazioa baliogabe geratuko da, eta hurrengo geratu denari, esleipena egin orduko errekerimendua bidaliko zaio, atal honetako goialdean zehaztutako moduan.

Kausak ez balira esleipendunari egoztekoak, administrazioak luzatu egingo du idazki arazoituaz, adjudikaziodunari epe berria jakinarazita, honek inondik ere ezin izango du ezarritako epea gainditu, tratatzen den kausaren ondorioz galduta gertatu daitekeen denbora berbera.

13.- Emakida formalizatzea

Emakidaduna behartuta dago dagokion kontratua sinatzera eta administrazio-klausula partikularren agiria sinatzera, edukia onartzen duela frogatzeko. Horretarako, 15 egun balioduneko epea izango du, esleipen-erabakia jakinarazten den egunetik kontaktzen hasita. Nolanahi ere, edozein unetan, alderdietako edozeinek kontratua notarioaren aurrean protokolizatzeke eskatu ahal izango du. Notario-, erregistro- edo zerga-gastu guztiak emakidadunaren kontura izango dira.

Emakidaren formalizazioa kontratazio-organoaren kontratatzailearen profilean argitaratuko da, eta, gutxienez, esleipenaren iragarkian aipatutako datu berak adieraziko dira, kontratua sinatu eta 15 eguneko epean gehienez.

14.- Emakidadunaren betebeharrak

Hauek dira emakidadunaren funtsezko betebeharrak:

a) Betebehar orokorrak

- Enpresaburu gisa aplikatu beharreko araudia betetzea, bereziki elikagaien salmenta-ustiapenaren ondorioz aplikatzekoa dena.
- Jarduerak eragindako gastu guztiak (argia, ura, etab.) esleipendunaren kontura izango dira.
- Esleipen-hartzaileak jarri nahi dituen kartel edo publizitate guztiak Bermeoko Udalaren oniritzia izan beharko dute. Oro har, jendeari ematen zaion dokumentazio guztia euskaraz eta gaztelaniaz idatzita egon beharko da.
- Bere kontura egitea instalazioak kontserbatzeko beharrezkoak diren konponketa guztiak, baita erabiltzaileek eragindako narriadurez ere, eta beharrezkotzat jotzen dituen berritzeak edo hobekuntzak.
- Esleipendunak eguneraturik izan beharko ditu negozioaren ustiapenari dagozkion zerga- eta lan-betebeharrak, eta zerbitzua egiteko kontratatutako langileak bere ardurapean egongo dira.
- Esleipendunak baimenean ezarritako helbururako bakarrik erabiliko ditu bere eskura jartzen zaizkion instalazio eta elementuak.
- Ezin izango da megafoniako gailurik erabili produktuak sustatzeko edo musika emititzeko salmentak dirauen bitartean.
- Jarduerarako beharrezkoak diren lizentziak indarrean izan behar ditu.
- Erregailuak erregaiz elikatzen dituzten instalazioek eta erregailu horien biltegitratzeak sektoreko araudi aplikagarria bete beharko dute.
- Saltokiak su-itzalgailu bat izan beharko du, gutxienez 21.-113B eraginkortasunarekin.

b) Eremu publikoaren gaineko betebeharrak

- Esleipendunak jarriko du saltokia zehaztu den lekuan.
- Postuaren ezaugarrietako bat inguruneari, estetikari eta funtzionaltasunari egokitzea izango da.
- Esleipenduna behartua dago erabilitako jabari publikoaren zatia, bere instalazioez gain, kontserbazio- eta garbitasun-egoera onean mantentzera, baita kutxa, bilgarri, paper eta abarren hondarrik ez uztera ere. Haren inguruan, eta sortzen duen zabor guztia, dagokion birziklatze-dukiontzira eramane beharko du esleipendunak. Eguna bukatutakoan, okupatutako espazioak egoera onean egon beharko du.
- Produktuak saltzeko instalazioen kokapenak oinezkoen joan-etorria ahalbidetu beharko du, Irigarritasunari buruzko Legean eta hura garatzen

duten arauetan oinezkoentzako ibilbideetarako ezarritako arauei jarraituz. Era berean, gurpil-aulkiak dituen pertsona baten aurreko hurbilketa ahalbidetu beharko da.

- Baimenaren xede den jarduerak eremu publikoan eragindako kalte eta galera guztien erantzule izango da.
- Zoladuran ez da ainguraketarik erabiliko, eta behar bezala babestu beharko da.
- Emakidunak, emakida epea amaitu eta erabileraren xede diren ondasunak administrazioaren esku, libre eta hutsik uzteko betebeharra dauka, eta onartu egiten du administrazioak daukan ahalmena botatzea erabaki eta exekutatzeko.
- Debekatuta dago material sukoia txurro-dendaren kanpoaldean pilatzea.
- Txurro-denda jartzen den tokian, kontuan hartuko da eremuko lurzoruan ezin dela ur-putzurik sortu.

c) Betebehar higieniko-sanitarioak

- Ontziratatu gabeko elikagaiak prestatu edo merkaturatzen dituzten langileek elikagaien higienari buruzko prestakuntza-ziurtagiria egiaztatu beharko dute.
- Langileen jantziak egokiak eta erabilera eskusiborakoak izango dira. Norberaren garbitasunean eta jantzietan garbitasuna mantenduko da, baita jardueraren berezko tresnetan ere.
- Biltegiatze-, manipulazio- eta salmenta-jarduera guztia behar bezala estalitako etxola edo instalazioetan egin behar da, eguraldi txarretik babestuta eta jendea janariak biltegiatze edo manipulatzeko guneetara sartzea eragozten duten sistemekin. Zikinkeria, kutsadura eta osasungaitasunaren edozein kausatetik behar den distantziara egon beharko dute.
- Biltegiatze-eremuak, hozkailuak, manipulazio-esparruak, lan-eremuak eta abar egin beharreko lan-bolumenaren arabekoak izango dira.
- Manipulatzeko eremuetan, ur-korrontearen zerbitzua izan behar dute, harrasketara eta/edo konketa pertsonaletara konektatuta, tresneria garbitzeko, eta estolderia-sarera hustubidea izan behar dute. Garbitzeko tresnak (xaboi likidoa eta paperezko toallak), garbigarriak eta garbiketa orokorrerako behar diren tresnak izanen dira.
- Kasu guztietan, edateko ura erabiliko da.
- Zoruek garbitzeko aukera eman beharko dute, eta hondakin solidoak nahiz likidoak pilatzea saihestu. Lauak, iragazgaitzak, jarraituak eta garbigarriak izango dira.
- Elikagaiak manipulatzeko diren edo haiekin kontaktuan jar daitezkeen azalerak material lisokoak, geldoak, ez xurgatzaileak, erraz garbitu eta desinfektatzekoak izango dira, eta ez da zura erabiliko.
- Lanerako tresnak material egokiak izanen dira eta garbi mantenduko dira.

- Hotz-kontserbazioa behar duten elikagaiak biltegitratzen badira, hozkailuak eduki beharko dituzte, hala eskatzen duten elikagaiak mantentzeko behar adinako edukiera eta kopurua dutenak. Gailu horien temperatura kontrolatu egingo da, eta horretarako termometroa izango dute. Erreferentziatzko temperaturak hoztutako elikagaien kasuan 0 °C eta 8 °C bitartekoak izango dira, eta izoztuen kasuan, -18 °C baino txikiagoak. Edari hotzen zerbitzua eginez gero, edari horientzako hozkailuek ez dute loturarik izanzen elikagaiak kontserbatzeko hozkailuekin.
- Zaborretarako eta hondakinatarako poltsa duten ontziak eduki beharko ditu. Poltsa horietan hustuko dira itxitakoan.
- Edozein biltegitratze-, manipulazio- edo prestatze-prozesutan ezin izango da elikagairik edo horiek dituzten ontzirik lurzoruarekin kontaktuan egon.
- Jendearentzako janariak beira-arasa, ontzi edo bilgarrien bidez behar bezala isolatuta egongo dira. Behar izanez gero, hozkailua jarriko da.
- Hornitzen diren lehengaiak behar bezala identifikatuta eduki beharko dira, ontziratuak, fakturak edo soltean erosten diren beste agiri komertzial batzuk etiketen bidez.
- Lanaldi bakoitzaren ondoren, barrutia eta erabilitako tresna guztiak garbitu eta desinfektatuko dira, eta elikagaiak behar bezala babestuta geratuko dira.
- Elikagaiak biltegitratzeko eta manipulatzeko eremuak behar bezala isolatuta egongo dira higiene-zerbitzuetatik, eta ezin izango dira logela gisa erabili, ez eta beren zeregin zehatzetatik kanpoko beste jarduera batzuetarako ere.
- Establezimenduan ahalik eta garbien bereizi behar dira zerbitzu publikoko eta aisialdiko eremua eta elikagaiak biltegitratu eta egiteko eremua, eta elikagaiekin lan egiteko ardura duten langileentzat gorde.
- Frijigailua kokatuz eta sabaiak jarriz gero, ez da kondentsaziorik sortuko.
- Debehatuta dago animalia- edo landare-koipeak edo horien nahasteak baimendutako landare-olioekin erabiltzea, bai eta prestatutako produktuak olio erretzea ere.
- Erabiltzen diren olio eta produktuen orde berriak jarri behar dira, osasun- eta kontsumo-arauek adierazten duten denbora egokian.
- Baimendutako pertsonak ontzi egokia eduki beharko du erretako eta baztertutako olioak birziklatzeko, edo, bestela, horretarako ezarritako enpresa edo enpresekin kontratatu edo adostu beharko du.
- Erabat debehatuta dago eta zigor larria ekarriko du, inguruko saneamendu-saretik (hustubideak edo estoldak) botatuko olioak isurtzeak.

d) Kontsumitzailearen babesa

- Ikusgai jarriko dira publikoarentzako salmenta-prezioak eta erreklamazio-orriak, hala eskatzen duten bezeroen eskura.
- Jarduera egiten den bitartean erreklamazioak jasotzeko helbidea. Helbide hori salmentaren ordainagirian edo egiaztagirian agertuko da beti.

15.- Emakidunaren eskubideak:

Emakidunaren eskubideak dira:

- Emakidan utzitako ondasuna, baimendutako erabilera eta jarduerarako askatasun osoz erabili ahal izatea, kanpoko ezelako oztopo barik, emakidak irauten duen bitartean.

- Interes orokorreko arrazoiengatik emakidaren epea amaitu baino lehen bertan behera utzi beharko balitz, izandako galeren arabera kalte-ordaina eskuratzea, galera horrek modu egokian eta egiatian justifikatu ondoren.

16.- Emakidadunaren erantzukizuna

Kontzesioduna erantzule zuzena izango da emakidaren ustiapena dela eta, funtzionamendu normal edo anormalaren ondorioz sortzen diren kalte-galerengatik. Horretarako, erantzukizun zibileko polizaren kopia baimendua eta ordainagiriak aurkeztu beharko ditu Idazkaritza Sailean, eta hutsegite larritzat hartuko da ordainagiriak mugaegunean ez ordaintzea.

Esleipen-hartzaileak aseguru-polizaren ale bat aurkeztu beharko du esleipena jakinarazi eta hurrengo 15 egunen balioduneko epean.

17.- Arau-hausteak eta zehapenak

Bermeoko Udalak zehapenak jarriko dizkio kontzesiodunari plegu honetan ezarritako betebeharrak ez betetzeagatik. Emakidadunak egin ditzakeen arau-hausteak arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke, eta honako hauek baloratuko dira: hutsegitearen larritasuna, hutsegitearen eragina edo errepikapena, eragindako kalteen zenbatekoa eta arau-hausleak lortutako onura.

Arau-hauste arinak dira:

- 1.- Erabiltzailearen bat begirunez ez tratatzea.
- 2.- Udalaren errekerimendu bati ez erantzutea.
- 3.- Baimendu gabeko produktuak saltzea.
- 4.- Instalazioa hondatzea eta zikintzea.
- 5.- Txurrotegia 6 egunetan jarraian edo 6 egun tartekatuan, hilabeteko natural baten barruan ez irekitzea, ezinbesteko arrazoiengatik ez bada.

Arau-hauste larriak dira:

- 1.- Urtebetean bi hutsegite arin egitea.
- 2.- Emakidadunaren betebeharrak ez betetzea, baldin eta instalazioen narriadura larria edo pertsonen edo ondasunen segurtasunerako arriskutsua bada.
- 3.- Udal errekerimendu batean emandako epeak arrazoirik gabe atzeratzea.
- 4.- Sektoreko legerian edo emakidaren xede den jarduerari eragiten dioten udal-ordenantzetan jasotako xedapenak ez betetzea.
- 5.- Erantzukizun zibileko polizaren ordainagiriak mugaegunean ez ordaintzea.

Arau-hauste oso larriak dira:

- 1.- Urtebetean bi hutsegite larri egitea.
- 2.- Emakidaren xede den ondasuna baimendu gabeko jardueretarako erabiltzea.
- 3.- Baimenik gabeko edozein pertsonak egindako ustiapena.
- 4.- Obra gehigarriak egitea udal baimenik gabe.
- 5.- Emakidunaren jarduna, jabari publikoaren edo instalazioen balio-galera eragitea.
- 6.- Tributuei, lanari, gizarte-segurantzari, osasunari edo kontsumoari buruzko legediaren arau-haustekak, dagokion araudian larritzat jotzen direnak.

Arau-hauste guztiak espediente kontraesankor baten bidez zehatuko dira, eta isunak emakidaren iraungipena edo ezeztapena galarazi gabe aplikatuko dira, bidezkoa bada. Zehapenen zenbatekoa honakoa izango da:

- 1.- Arau-hauste arinentzat: 750 euro arte.
- 2.- Arau-hauste larrien kasuan: 751 eta 1500 euro artean.
- 3.- Arau-hauste oso larriak: 1501 eurotik 3000 eurora.

Isunaren zenbatekoa mailakatzeko, kontuan hartuko dira eragindako kalteen zenbatekoa, ukitutako ondasun edo eskubideen balioa, erantzuleak behin eta berriz egin izana eta erantzulearen erruduntasun-maila. Inguruabar aringarritzat hartuko da arau-hausleak errekerimenduan adierazten den epean sortutako egoera zuzentzea, isuna erdira murrizteko.

Zehapenez gain, jabariari edo instalazioei kalteak egiten bazaizkie, eta ustekabeko edo ezinbesteko kasuetan ez badira, administrazioak kaltetutako elementuak lehengoratzeko eskatu ahal izango du. Zehapenak jasotzeko, premiamendu bidea erabili ahalko da.

18.- Emakidaren amaiera

Plegu honetan aurreikusitakoez gain, hauek dira emakida iraungitzeko arrazoiak:

- Epea amaitu ondoren iraungitzea.
- Udala eta emakidaduna ados jartzea.
- Entitatearen nortasun juridikoaren iraungipena.
- Emakida erreskatatzea.
- Emakidaren titularraren betebeharrak, organo eskudunak deklaraturakoak, oso modu larrian ez betetzea.
- Emakidadunak uko egitea.
- Aurretiazko baimenik ez izatea kontzesioa eskualdatzen denean.
- Kanona edo tasa ez ordaintzea, bai eta kontzesioaren titularraren betebeharren beste edozein ez-betetze larri ere, kontzesioa edo baimena eman zuen organoak deklaratuak badira.
- Ondasuna desagertzea edo aprobetxamendua agortzea.
- Ondasunaren desafektazioa. Kasu horretan, 33/2003 Legearen 102. artikuluan ezarritakoaren arabera likidatuko da.

- Foru Ogasuneko zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak egunean ez edukitzea.
- Aseguru polizarik ez edukitzea.
- Baimendutako erabilera eta jarduerak garatzeko legediak agintzen dituen betebeharrak eta baldintzak ez betetzea.

Emakida iraungitzeko, ofizios edo emakidadunak eskatuta, administrazio-ebazpena behar da, dagokion espedientea tramitatu ondoren.

Arrazoi horietakoren batengatik kontzesioa iraungitzen bada, emakidadunak ez du kalte-ordainerako eskubiderik izango.

19.- Itzultzea

Emakida amaitu edo iraungitzean, arrazoa edozein dela ere, emakidaren xede den higiezina eta obra eta instalazio guztiak, doan itzuliko zaizkio udalari kontserbazio- eta funtzionamendu-egoera onean.

Emakida-epa amaitu baino hiru hilabete lehenago, udalak teknikariak izendatuko ditu instalazioen egoera ikuskatzeko, eta, ikuskapen teknikoa ikusita, beharrezkotzat jotzen diren konponketa-lanak eta obrak aurreikusitako baldintzetan egiteko aginduko du. Egin beharreko konpontze edo berritze lanak emakidadunaren kontura izango dira.

Aurrekoa gorabehera, emakidadunak irregulartasun ororen berri eman beharko die udal zerbitzu teknikoei, baldin eta horrek higiezinaren narriadura eragiten badu eta, ondorioz, eraikina udalak onartzen ez dituen baldintzetan itzultzen badu.

Udalak jaurtiketa erabaki eta gauzatzeko ahalmena izango du bidezkoa den kasuetan.

20.- Emakidaren erreskatea

Udalak beretzat gordetzen du kontzesio administratiboa iraungi baino lehen indarririk gabe uzteko ahalmena, baldin eta interes publikoko inguruabarrek justifikatzen badute, sortzen diren kalteak ordainduz, hala badagokio.

21.- Emakidaren lagapena, eskualdaketa edo errentamendua

Esleipen hartzaileak lizitazio honen bidez eskuratutako eskubide eta betebeharrak hirugarren pertsonari baino ezin izango zaizkie eskualdatu, Bermeoko Udalak idatziz baimendu ondoren. Eskualdatzea ez da onartuko baldin eta frogatzen ez bada eskualdatzaileak edo emakidadunak emakida zuzenean ustiatu duela 2 urtez gutxienez, eta emakidadun berriak hasierako emakidadunak zituen gaitasun-baldintza berberak betetzen dituela. Idazki horretan honako hauek jasoko dira:

- Eskualdatzea eskatzen duen pertsona fisiko edo juridikoa.

- Eskualdaketaren prezioa. Eskualdatzea eskatzen zaion pertsonak klausulen agiriaren eduki osoa bete beharko du.

Baimendu gabeko eskualdatzeek kontzesioa iraungitzea ekarriko dute. Debekatuta dago kontzesioaren errentamendua.

22.- Jarduera gauzatzeko hizkuntza-baldintzak

Emakida hau Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuko 6. artikuluan ezarritako hizkuntza-ofizialtasun bikoitzeko erregimenari lotuta dago, eta azaroaren 24ko 10/1982 Legeak, euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizkoak, eta hori garatzen duen araudiak (azaroaren 19ko 179/2019 Dekretua, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa) arautzen dute; beraz, kontzesiodunak bete egin beharko ditu hizkuntza-eskubide horiek.

Aurrekoan adierazitakoren kalterik gabe, ahal den kasuetan, euskararen erabilera lehenetsiko da. Helburu hori lortzeko, udaleko Euskara Sailaren laguntza izango du emakidunak.

23.- Konfidentzialtasuna eta datu pertsonalen tratamendua

Bermeoko Udaleko Idazkaritza sailak, 3/2018 Lege Organikoan eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio libreari dagokienez, pertsona fisikoak babesteari buruzkoan ezarritakoa betez, eskatzaileei jakinarazten die beren datu pertsonalak udal-kudeaketaren berezko zereginak egiteko fitxategietan sartuko direla.

Enkantea ebatzi ondoren, esleipen emaitza iragarki taulan eta udalaren web orrian argitarako dira.

24.- Legedi aplikagarria

Emakida honi honako legedia aplikatuko zaio:

1. Administrazio Publikoen Ondarea arautzen duen 33/2003 Legea.
2. Toki Entitateen Ondasunen Erregelamendua onartzen duen 1372/1986 Errege Dekretua.
3. Sektore Publikoen Kontratuak arautzen dituen 9/2017 Legea.
4. Zuzenbide administratiboko arauak.
5. Zuzenbide pribatuko arau orokorrak.

Horiek horrela, baldintza agiri honetan aurreikusten ez den guztirako, edozein zalantza argitu eta emakidaren baldintzak interpretatzeko, aipatutako legediak aurreikusitakoa jarraituko da.

25.- Izaera juridikoa

Emakida honen ondorioz hartu daitezkeen erabakien izaera administratiboa da eta bide administratiboari amaiera emango diote. Hori horrela, zuzenean aplikagarriak izango dira, udalaren aurrean edota administrazioarekiko auzibidean errekurritzeko eskubidearen kalterik gabe.

I. ERANSKINA
Erantzukizunpeko aitorpena

..... jaun/andereak,
.....ko kalean, zenbakian bizi denak,
..... telefono zenbakia eta zenbakidun NANA daukanak, bere
izenean edo/eta Enpresaren ordezkari lez, etako
..... kalean, zenbakian helbidea duenak,
..... telefono zenbakia, eta IFZ daukanak Klausula
Administratibo Partikularren Pleguan aurreikusitako eran kreditatzen dudana, zera adierazten
dut:

1.- Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratutako iragarkiaren bidez, Erreteren txurroategia
ipintzeko emakida esleitzeko deialdia ezagutu ahal izan dudala, eta deialdi honen oinarriak
jasotzen duen agiria aztertu eta ezagutzen dudala.

2.- Ados nagoela eta, borondatez, horren esku geratzen naizela eta aurrekoa, oso-osorik
eta aldaketa barik onartzen dudala.

3.- Aipatutako emakida eskuratzeko baldintza guztiak betetzen ditudala eta emakida
indarrean dagoen bitartean baldintza guztiak beteko ditudala.

4.- Baimendutako erabilera edo jarduera garatzeko legediak eskatzen dituen baldintzak
beteko ditudala uneoro eta beharrezko baimenak eskuratu eta mantenduko ditudala emakidak
irauten duen denbora guztian zehar.

5.- Ez daukadala ezelako zorrik ez Bermeoko Udalarekin, ez Foru Ogasunarekin, ezta
Gizarte Segurantzarekin ere, eta deialdi honetan parte hartzeko ezelako debekurik ere ez
daukadala.

6.- Emakume eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera
sexu-diskriminazioan erori izanagatik zigor edo administrazio arloko zigorrik ez dudala.

7.- Ez nagoela SPKLren 71. artikuluan administrazioarekin kontratatzeko ezarritako
debekuetan, ezta bere kasuan, ordezkatzen dudan pertsona juridikoaren administratzaileetako
bat ere.

8.- Bermeoko Udaleri baimena ematen diodala emakida honi lotutako eskakizun, berri
emate eta jakinarazpen mota guztiak posta elektronikoki bidez bidaltzeko behean ageri den
helbidera, legeak ezarritako ondorio juridikoekin.

Helbide elektronikoa:

DATUEN BABESARI BURUZKO INFORMAZIOA

Araudia: Datuak Babesteko 3/2018ko Lege Organikoa (DBLO) eta 2016/679 Datuak Babesteko Erregelamendu Europarrari dagokion informazioa (DBEO)

Tratamenduaren arduraduna: Bermeoko Udala, antolakuntza@bermeo.eus

Tratamenduaren helburuak: Bermeoko Udaleko ondare espedienteen kudeaketa

Tratamenduaren oinarri juridikoa: Herri Administrazioen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legearen eta ekainaren 13ko Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamendua onartzen duen 1372/1986 Errege Dekretuaren legezko betebeharrak bat betetzea.

Hartzaileak: Datu pertsonalak hirugarren entitatei ematen ahalko zaizkie, deskribatutako helburuen eta legezko betebeharren arabera.

Eskubideak: Datuetara iristeko, datuak zuzentzeko, datuak ezereztzeko, tratamendua mugatzeko eta datuen aurka egiteko eskubideak Bermeoko Udaleri idazki bat bidaliz eta Datuak Babesteko Euskal Agentziari erreklamatu.

Informazio gehigarria: Udalaren webgunean, <http://www.bermeo.eus/datuenbabesa.html>

8.- Era berean, konpromisoa hartzen dut udalaren aurrean egiaztatzeko, emakida esleitu baino lehen edo Udalak eskatzen dituen bestelako momentuan, legez eta pleguetan zehazten diren agiriak baditudala, eta baliozkoak direla.

Bermeon, data.

Sinadura:

DATUEN BABESARI BURUZKO INFORMAZIOA

Araudia: Datuak Babesteko 3/2018ko Lege Organikoa (DBLO) eta 2016/679 Datuak Babesteko Erregelamendu Europarrari dagokien informazioa (DBEO)

Tratamenduaren arduraduna: Bermeoko Udala, antolakuntza@bermeo.eus

Tratamenduaren helburuak: Bermeoko Udaleko ondare espedienteen kudeaketa

Tratamenduaren oinarri juridikoa: Herri Administrazioen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legearen eta ekainaren 13ko Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamendua onartzen duen 1372/1986 Errege Dekretuaren legezko betebeharrak bat betetzea.

Hartzailak: Datu pertsonalak hirugarren entitateei ematen ahalko zaizkie, deskribatutako helburuen eta legezko betebeharren arabera.

Eskubideak: Datuetara iristeko, datuak zuzentzeko, datuak ezereztzeko, tratamendua mugatzeko eta datuen aurka egiteko eskubideak Bermeoko Udalari idazki bat bidaliz eta Datuak Babesteko Euskal Agentziari erreklamatu.

Informazio gehigarri: Udalaren webgunean, <http://www.bermeo.eus/datuenbabesa.html>

II. ERANSKINA

Proposamen ekonomikoaren eredia

..... Jaun/Andreak,
..... helbidearekin eta zenbakiduneko
NANarekin, nire izenean edo helbidea eta
..... IFZ daukan izeneko
enpresaren ordez,

AITORTZEN DUT:

- I.- Erretenen txurrotegia ipintzeko jabari publikoko emakida esleitzeko lizitazio iragarkiaren berri izan dudala.
- II.- Neuk, edota ordezkutzen dudan enpresak indarrean dagoen araudiak finkatutako baldintza eta irizpide guztiak betetzen ditudala.
- III.- Aipatutako emakida eskuratzeko honako diru proposamena egiten dudala:

ERRETENEN TXURROTEGIA IPINTZEKO EMAKIDA: euro (zebakitan/hitzetan).

Bermeen, data.

Sinadura:

DATUEN BABESARI BURUZKO INFORMAZIOA

Araudia: Datuak Babesteko 3/2018ko Lege Organikoa (DBLO) eta 2016/679 Datuak Babesteko Erregelamendu Europarrari dagokion informazioa (DBEO)

Tratamenduaren arduraduna: Bermeoko Udala, antolakuntza@bermeo.eus

Tratamenduaren helburuak: Bermeoko Udaleko ondare espedienteen kudeaketa

Tratamenduaren oinarri juridikoa: Herri Administrazioen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legearen eta ekainaren 13ko Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamendua onartzen duen 1372/1986 Errege Dekretuaren legezko betebeharrak bat betetzea.

Hartzaileak: Datu pertsonalak hirugarren entitatei ematen ahaliko zaizkie, deskribatutako helburuen eta legezko betebeharren arabera.

Eskubideak: Datuetara iristeko, datuak zuzentzeko, datuak ezereztzeko, tratamendua mugatzeko eta datuen aurka egiteko eskubideak Bermeoko Udalarari idazki bat bidaliz eta Datuak Babesteko Euskal Agentziari erreklamatzuz.

Informazio gehigarria: Udalaren webgunean, <http://www.bermeo.eus/datuenbabesa.html>

DATU PERTSONALEN TRATAMENDIARI BURUZKO INFORMAZIOA

Tratamenduaren arduraduna	Bermeoko Udala. Idazkaritza Saila
Datuak Babesteko Ordezkararen kontaktu datuak	dbo@bermeo.eus
Tratamenduaren xedea	Erretenen txurrotegia ipintzeko jabari publikoaren emakida esleitzeko eskabideen kudeaketa
Tratamenduaren legitimazioa edo oinarri juridikoa	DBAOkp 6.1.b) artikulua Herri Administrazioen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legea eta 1372/1986 Errege Dekretua, ekainaren 13koa, Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamendua onartzen duena Erretenen txurrotegia ipintzeko jabari publikoaren emakida esleitzeko administrazio-klausula partikularren agiria
Hartzaileak	Datu pertsonalik ez zaie lagako hirugarrenei
Gordetzeko epea	Datuak gorde egingo dira jaso diren xederako eta/edo xede horretatik eta datuen tratamendutik erator litekeen erantzukizun oro preskribatzeko, legez ezarritako epeak iraungi bitartean. Horrez gain, gorde egingo dira baita pertsona interesatuarekin izandako harremanetik eratorri litezkeen erreklamazioak egiteko edo horietatik babesteko aurreikusitako epeak iraun bitartean. Orobat, artxibategi eta dokumentazioari buruzko araudian xedatutakoa aplikatu zaie datuei
Pertsonen eskubideak	Datuak babesteko delegatuaren bitartez, pertsona interesatuak datuak ikusi ditzake, aldatzeko eskatu, edo, hala behar bada, datuak ezeztatzeko eskatu, horien kontra agertu edo tratamendua mugatzeko eskatu

